

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Got me a hot one!
Roy Loney & Señor No.
Bloody Hotsack.
Iraupena: 36'14".
13,50 euro.

Benetako rock-and-rollak ez dauka iraungitze datarik

Loney rock-and-rollaren altxor ezkutueta-ko bat da: AEBetako Flaming Groovies ezinbesteko taldearen sortzaile izandakoa, ez dio inoiz utzi konposatzeari ezta intentsitate handiko kontzertuak egiteari ere. Gaur egun hiru talde ditu eta horietako bat Donostian: Señor No. Kasualitate bati esker egin zuten bat, baina ez da kasualitatea Loneyk "azeri" horiek aukeratzea. Aurretik EP bat egin zuten eta orain diskoa. 1950eko hamarkadako rock-and-roll

beroenarekin hasi eta punk-rocka, gara-gea, sustraidun rock amerikarra, Elvisen zipriztinak, 1960ko hamarkadako mistizismoa eta bestelakoak datoz jarraian. Gainera, Strangeloves eta Ray Davies koktelean sartzeko edo ukitu jazzeroak emateko gai da; baita Groovies-en klasiko bat pizteko ere. Betiko rock-and-rollean sinistera bultzatzen zaituen lana.

www.myspace.com/royloneyysenorno

Roy Loney

«Garrantzitsua da ikusleak aldi berean eroso eta deseroso sentiaraztea»

Zer berezitasun dauka Señor No taldeak? Zer da daukan onena?

Señor No oso gogor rokeatzen duen taldea da, kideek beti %100 ematen dute. Beraiekin lan egitea izugarria da energia asko ematen didatelako. Taldekide guztiak musikari itzelak dira, eta ni bezain erotuta daude. Oso pozik nago beraiekin lan egiteko aukera daukadalako.

Zure kantuak entzunda, badirudi beti iraganera begiratzen duzula: 50eko rock-and-rola, rockabil-...

Niretzat 50eko hamarkadako rockean hasi zen guztia, hori da nire abiapuntua. Chuck Berry, Fats Domino, Little Richard, Eddie Cochran, Carl Perkins eta Elvis. Baina 60ko hamarkadako Stones, Kinks eta Who-k ere eragin handia izan zuten nigan. Ni rockean nago sustraiengatik; dantza egiteko

gogoia ematen badit, gustuko dut. Gaur egungo musika gutxi entzuten dut, baina The Hives, The Hi-Risers eta The Minus Five oso gustura entzuten ditut.

Zein da zure sekretua halako kontzertu indartsuak ematen jarraitzeko?

Aspaldiko esamoldea aintzat hartzea da sekretua: "Eman jendeari nahi duena". Nik uste dut badakidala zer nahi duen eta ahalegin guztia egiten dut hori emateko.

Kantu borobilak, energia ugari eta hurbileko hartu-eman. Luzaroan dihardut hori egiten, eta entzuleak eta biok elkar ezagutzen dugu dagoeneko.

Zer da kontzertu baten ikusi/entzun nahi duzuna, zer eskatzen duzu?

Artistek ikusleei errespetua erakutsi behar diete, ondo jo eta profesionalak izan. Umore ona izatea ere eskertzekoa da. Horrez gain, garrantzitsua da ikusleak aldi berean

eroso eta deseroso sentiaraztea. Fun-
tzionatzen duenean, magikoa da.

Zer da rock-and-rola zuretzat?

Rock-and-rola da ni naizena, nik egiten dudana. Akto-rea, idazlea eta ekoi-
zlea ere banaiz, baina ez diot inoiz rockerra izateari utzi. Nire arima barru-barrutik erre-
tzen du horrek eta egiten dudana guz-
tian dauka eragina. ■

